# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 4543

*EBAZPENA, 2022ko uztailaren 22koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez ondoko aginduaren babespean eskatutako laguntzak eman eta ukatzen baitira: Agindua, 2021eko abenduaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2022. ekitaldirako nekazaritza eremuen garapena eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzen deialdia egiten duena. G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuak, izaera pribatuko erakundeei zuzenduak (Erein Pribatuak).*

Ikusi dira gorago aipatutako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2021eko abenduaren 15eko Aginduaren babespean eskatutako laguntzak –ebazpen honen I. eta II. eranskinetan– eta eskariekin batera ekarritako dokumentazioa-espediente zenbakiak aipatu eranskinetan agertzen dira.

Kontuan izaki, besteak beste, Landa ingurunearen garapenerako apirilaren 8ko 10/1998 Legearen arabera, landa garapeneko politikaren xede orokorrak ondokoak direla: nekazaritzaren eta landa ingurune osoaren funtzioaniztasuna eta iraunkortasuna bermatzea, landa ingurunearen berezko ezaugarri nagusiei eustea eta nekazaritzako enpresek eta ekonomia egiturek lehiatzeko duten gaitasunaren hobekuntza sustatzea.

Hemen onartutako laguntzak honen babespean ematen dira: Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzea arautzen baita; laguntza horien muga 200.000 euro da enpresa bakoitzeko, hiru zerga ekitalditan.

Kontuan hartu da Balorazio Batzordeak 2021eko abenduaren 15eko Aginduaren hamargarren ebatzia aplikatuz egindako ebazpen-proposamena. Balorazio-batzorde horretako pertsonak 2022ko maiatzaren 24ko Ebazpenaren bidez izendatu ziren, eta ebazpen hori Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2022ko maiatzaren 24ko Ebazpenaren bidez moldatua izan zen.

Kontuan hartuta aurreko guztia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean aipatutako pertsona eskatzaileei ematea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2021eko abenduaren 15eko Aginduan araututako laguntzak; izan ere, eranskin horretan ondokoak zehazten dira: pertsona onuraduna, diruz lagundutako proiektua, diruz laguntzeko moduko gastuaren zenbatekoa eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Guztizko zenbatekoa 2.366.665,74 euro da.

Inbertsio-proiektuen kasuan, jarduketak gauzatzeko epea ordainketa-kreditua edo konpromiso-kreditua eman den aurrekontu-ekitaldian amaituko da, aipatutako I. eranskinean jasotakoaren arabera (emandako laguntzari buruzko zutabeak).

Proiektuak gauzatzeko epeak 2022ko abenduaren 31n amaitzen badira, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera, eta egun horretan diruz lagundutako jarduerak eta/edo inbertsioak amaitzerik izango ez balute, 2022ko azaroaren 30a baino lehen eskatu ahal izango dute haien

luzapena, 2021eko abenduaren 15eko Aginduaren hamabosgarren ebazpen-zatiaren bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Enplegua sortzeko proiektuei dagokienez, lanpostuak deialdiaren ekitaldian sortu behar dira eta beranduenez 2022ko abenduaren 31n.

Dirulaguntza eman ahal izateko aldez aurretik justifikatu beharko da egindako jarduerak eta/edo inbertsioak ordaindu izana, kontuan izanda zein diren aurkeztu beharreko agiriak eta 2021eko abenduaren 15eko Aginduaren 16. artikuluan ezarritako baldintzak.

Onuraduna eratzen ari den pertsona juridikoa bada, laguntza kobratzeko ezinbestekoa izango da pertsona hori eratuta egotea.

Halaber, beharrezko direnean baimenak eta/edo lizentziak, beroriek ematea ezinbestekoa izango da laguntza kobratzeko.

Diruz laguntzeko moduko proiektua ezarritako epeen barruan egiten ez bada, ezta luzapen-epeen barruan ere, edo ezarritako epean proiektua egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkezten ez badira, horrek dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du berekin.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean aipatutako pertsona eskatzaileei ukatzea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2021eko abenduaren 15eko Aginduan arautㅤutako laguntzak, eta eranskin horretan pertsona eskatzailea eta ukazioaren zioak zehaztea.

Hirugarrena.– Laguntza ematen zaion proiektua betetzen ez bada, edo laguntza ematea ekarri duten baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira, eta batez ere, laguntza jaso duten proiektuei inbertsioa egin eta ondorengo bost urteetan gutxienez ez bazaie eusten, 2. 1.a) eta b) artikuluan arautㅤutako laguntzen kasuan, eta hiru urtean, 2. 1 c) artikuluan arautㅤutako laguntzetarako sortutako lanpostuen kasuan, laguntzak eten egingo dira, eta, eskuratutako kopuruak itzuli beharko dira osorik edo zatika.

Laugarrena.– Administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 22a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.

# I. ERANSKINA

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

| | Espediente-zk. | Sozietatearen izena | Proiektua | Lagun. Inbe. (euro) | Jasotako laguntza (euro) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2022 (euro) | 2023 (euro) |
| 1 | 00001-CDE2022-26 | Txakur-Can Intxausti Sociedad Limitada | Txakur-Can Intxausti | 98.000,00 | 26.541,37 | 5.798,63 |
| 2 | 00003-CDE2022-26 | Carolina Peños Salinas | Karola kosmetika naturala | 22.614,67 | 8.593,59 | |
| 3 | 00003-CNE2022-26 | Ane Echeverria Irastorza y Otro CB | Ane Echeverria Irastorza y Otro CB | 15.840,00 | 7.920,00 | 7.920,00 |
| 4 | 00004-CDE2022-26 | Katiak Sociedad Anónima Fabricantes de Cadenas | Estrategia de crecimiento. Ampliación de instalaciones. Adquisición de nuevos pabellones | 433.001,00 | 58.455,14 | 58.455,13 |
| 5 | 00005-CDE2022-26 | Lavándula Cosmética Natural Sociedad Limitada | Laboratorio cosmético | 4.666,73 | 1.493,35 | |
| 6 | 00005-CNE2022-26 | Ermar-Motor Sociedad Limitada | Creación y emprendimiento de nueva línea de negocio Ermar Motor | 41.000,00 | 20.500,00 | 20.500,00 |
| 7 | 00006-CDE2022-26 | Instant Sport S.L. | Mejora de la competencia de Instant Sport Aizarnazabal: patentes e informática | 64.743,20 | 12.062,71 | 2.828,23 |
| 8 | 00006-CNE2022-26 | Arantza Egoscozabal Nazabal | Obrador de repostería artesanal y ecológica | 5.280,00 | 2.640,00 | 2.640,00 |
| 9 | 00007-CDE2022-26 | Jon Torres Gómez | Apartamentos turísticos en Laguardia «Santa Engracia 32» | 140.497,23 | 28.099,45 | |
| 10 | 00007-CNE2022-26 | Lizelan SL | Mejora de la competitividad a través de cambios en la gestión y en los procesos mecanizables de los | 38.880,00 | 19.440,00 | 19.440,00 |
| 11 | 00008-CDE2022-26 | Eider Aldazabal Salegui | Madarixako benta | 61.278,31 | 8.391,33 | 8.766,60 |
| 12 | 00009-CDE2022-26 | Mecanizados de Chapa Urlaser Sociedad Limitada | Inversiones para el aumento de la productividad y la competitividad de Urlaser | 750.000,00 | 65.000,00 | 65.000,00 |
| 13 | 00012-CDE2022-26 | Sammic SL | Diversificación de mercados y ampliación de negocio de trituradores de Sammic | 280.961,00 | 73.049,86 | |
| 14 | 00014-CDE2022-26 | Ematec Soluciones y Proyectos Sociedad Limitada | Inversiones avanzadas en Ematec para la adquisición de un centro de mecanizado CNC y la incorporación | 107.750,00 | 25.860,00 | |
| 15 | 00015-CDE2022-26 | Cometel SA | Mejora de la competitividad y desarrollo de Cometel | 138.293,00 | 28.093,82 | 9.245,29 |

| | Espediente-zk. | Sozietatearen izena | Proiektua | Lagun. Inbe. (euro) | Jasotako laguntza (euro) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2022 (euro) | 2023 (euro) |
| 16 | 00016-CDE2022-26 | Industri SL | Generación de una nueva línea de negocio, las cortinas o estores decorativos con venta online | 47.547,80 | 12.362,42 | |
| 17 | 00017-CDE2022-26 | David Aguirre Unzueta | Diseño y oferta de un producto multisectorial para el bienestar personal desde la puesta en valor de | 6.485,00 | 1.426,70 | |
| 18 | 00018-CDE2022-26 | Padel Mijoa SL | Padel Saturraran | 41.300,00 | 8.673,00 | |
| 19 | 00019-CDE2022-26 | Ivan Santillan Roman | Arabadrone | 38.315,00 | 11.494,50 | |
| 20 | 00021-CDE2022-26 | Itzal Martínez de Luco Arangüena | Consulta de fisioterapia en Urrunaga. «Urrunaga fisioterapia» | 54.832,65 | 16.742,01 | 2.997,74 |
| 21 | 00023-CDE2022-26 | Pachico Family States, Sociedad Limitada | Rehabilitación de un edificio destinado a hotel de dos estrellas y apartamentos | 1.104.843,54 | 100.000,00 | 100.000,00 |
| 22 | 00027-CDE2022-26 | Aitzlehor SLL | Idiazabal Inn | 255.000,00 | 62.599,39 | 21.550,61 |
| 23 | 00028-CDE2022-26 | Donostialdea-Bidasoako Landa Garapenerako Elkartea Behemendi | Hondarribiako landa eremuko garraio zerbitzua | 36.135,02 | 9.395,11 | |
| 24 | 00029-CDE2022-26 | LGK SL | Manipulación y almacenaje de cargas pesadas | 84.142,84 | 17.670,00 | |
| 25 | 00031-CDE2022-26 | Sea Marconi Energía y Medio Ambiente Sociedad Limitada | Inversión para nueva línea productiva e innovación | 360.000,00 | 54.000,00 | 54.000,00 |
| 26 | 00032-CDE2022-26 | Calderería y Construcción SL | Proyecto de inversión para el incremento de la productividad de calcosa y su diversificación | 161.399,63 | 28.233,83 | 13.730,07 |
| 27 | 00033-CDE2022-26 | Imanol Mugarza Ayarzaguena | Trabajos de ampliación de terraza en el restaurante Trabakua Behekoa Jatetxea | 32.145,68 | 8.357,88 | |
| 28 | 00035-CDE2022-26 | Rheyde Lanabesak SL | Rheyde tools | 389.238,54 | 50.601,01 | 50.601,01 |
| 29 | 00036-CDE2022-26 | Troargra SL | Proyecto inversión instalaciones productivas para incremento productividad y automatización procesos | 178.311,64 | 26.916,27 | 12.312,29 |
| 30 | 00037-CDE2022-26 | Recopolymers, S.L. | Mejora de la productividad mediante el incremento de aprovechamiento y reciclabilidad de plásticos | 250.117,00 | 56.857,69 | 10.673,90 |
| 31 | 00038-CDE2022-26 | Andrés María Díez Ayesa | Adquisición y reforma de local para implantación de nuevas líneas de negocio en Laguardia | 141.750,95 | 46.777,82 | |
| 32 | 00039-CDE2022-26 | Noverek Events SL | Ampliación: reforma casa San Pedro 35 e instalación de carpa de 300 $m^2$ | 291.762,73 | 14.632,78 | 22.694,64 |

| | Espediente-zk. | Sozietatearen izena | Proiektua | Lagun. Inbe. (euro) | Jasotako laguntza (euro) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2022 (euro) | 2023 (euro) |
| 33 | 00040-CDE2022-26 | Elcoro Decoletaje SL | Proyecto de inversión aumento de la productividad y mejora de la eficiencia | 420.365,15 | 51.568,60 | 18.919,23 |
| 34 | 00041-CDE2022-26 | Juaristi Boring & Milling Machines SL | Ampliación instalaciones productivas para nueva gama centros mecanizado vertical con tecnologías 4.0 | 1.769.020,00 | 80.616,81 | 80.616,81 |
| 35 | 00042-CDE2022-26 | Granallados Jomi SL | Plan de crecimiento 2021-2023 (fase II) | 171.350,00 | 31.508,50 | 9.615,50 |
| 36 | 00043-CDE2022-26 | Exclusivas Durango S.A. | Desarrollo de inversiones para la modernización y desarrollo de nuevos productos en Exdusa | 737.557,00 | 99.570,20 | 99.570,19 |
| 37 | 00044-CDE2022-26 | Bergaretxe Geltokia S. L. | Sala multifuncional-txoko | 117.152,40 | 33.974,20 | |
| 38 | 00046-CDE2022-26 | Hotel Etxe Aundi SL | Apertura nuevo Hotel Etxe Aundi | 177.276,82 | 42.546,44 | |
| 39 | 00047-CDE2022-26 | Egile Mechanics SL | Plan de desarrollo industrial e internacionalización | 241.230,00 | 35.429,88 | 10.890,12 |
| 40 | 00048-CDE2022-26 | Japs Nautical Design Sl | Aumento de la capacidad productiva | 201.790,00 | 46.411,70 | |
| 41 | 00049-CDE2022-26 | Lanzagorta e Hijos, S.L. | Taller 4.0 | 603.811,63 | 100.000,00 | 100.000,00 |
| 42 | 00052-CDE2022-26 | Transportes y Logística Carmelo SL | Ampliación oferta de servicios de transporte | 386.495,65 | 88.894,00 | |
| 43 | 00055-CDE2022-26 | Transportes Genadio Fernández Sociedad Limitada | Nueva línea de servicio | 42.265,00 | 10.255,85 | 2.001,00 |
| 44 | 00057-CDE2022-26 | María Asunción Borjabad Ayllón | Ecoworking La Trenza | 4.846,50 | 1.070,96 | 431,46 |
| 45 | 00058-CDE2022-26 | José Sergio del Campo Olaso | In positive: servicio integral de alquiler de órganos positivos y clavicémbalos | 54.576,63 | 8.507,23 | 12.231,89 |

## II. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKABIDEAK

| | Espediente-zk. | Sozietatearen izena | Proiektua | Ukapenaren arrazoia |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 00001-CNE2022-26 | Goaxen Bizkaia Park SL | Proyecto desarrollo BPA | Proiektuak ez du tokirik |
| 2 | 00002-CDE2022-26 | Olaia Aramburu Iriondo eta Beste Bat OK | Certificado del establecimiento con número de registro TSS00063, creación de un parque infantil | Proiektuak ez du tokirik |
| 3 | 00002-DSA2022-26 | Olatz Manterola Anza | Ampliación del agroturismo Montefrío | Proiektuak ez du tokirik |
| 4 | 00003-DSA2022-26 | Ramón Muguerza Imaz | Telleri zahar baserriko konpostgunea. Inbertsio osagarriak | Aurreko deialdi baten diruz lagundutako proiektua |
| 5 | 00004-CNE2022-26 | Usurbilgo Alkartasuna Nekazal Koperatiba Elkartea | Ibilgailuentzako horniketa puntua modernizatzeko proiektua | Ez da lanposturik sortzen |
| 6 | 00004-DSA2022-26 | Helados Italianos Gelati Gelati SL | Churrería en parking Areatza Gorliz | Proiektuak ez du tokirik |
| 7 | 00022-CDE2022-26 | Bil-Bu SL Materiales de Construcción | Nueva instalación expo para reforzar la actividad de Bil-Bu | Proiektuak ez du tokirik |
| 8 | 00054-CDE2022-26 | Técnicas Avanzadas en Mecanización de Modelos SL | Mejora del proceso productivo de diseño y fabricación de modelos de fundición | Proiektuak ez du jaso gutxienezko puntuazioa lagungarria izateko |